

# Istorio gainjarriak - Erretratu kulturalak



Istorioak osatzen dituzten dimentsioak eta elementuak ikertuko ditugu, batez ere interseksionalitateak eta tokien, denboren eta pertsonen gurutzatzeak funtsezko zeregina betetzen dutenean. Gure istorio propioak sortuko ditugu gure horizonteak zabaltzeko, erretratu tradizionalatik haratago, erretratu kultural komunak zein partikularrak eraikiz.

## Helburuak

- Txuspo Poyoren obra eta sorkuntza- eta ikerketa-prozesuetara eta *Izaro* dokumentalera/saiakerara hurbiltzea.
- Lurraldean denboran zehar gertatzen diren bidegurutzak eta geruzak aztertzea, gure testuinguru, historia eta nortasunen (erretratuen) aberastasuna ulertzeko.
- Ikerketa bat osa dezaketen elementuak aztertzea, bai eta horiek kontakizun gisa eta dimentsio sortzaile/bisual gisa adieraztea ere.

## Aipamenak

**IZARO – Dokumentala:** <https://txuspo-poyo.com/eu/portfolio-item/izaro-2012-18/>

**Interseksionalitatea – Wikia MegafonoMorea:** <https://megafonomorea.fandom.com/es/wiki/Interseksionalitatea>

**El riesgo de la historia única – Chamizada Adicheren TED Talk de:** [https://www.ted.com/talks/chimamanda\\_ngozi\\_adichie\\_the\\_danger\\_of\\_a\\_single\\_story](https://www.ted.com/talks/chimamanda_ngozi_adichie_the_danger_of_a_single_story)

**En un bosquecillo – Ryunosuke Akutagawa:** [https://www.literatura.us/idiomas/ra\\_enel.html](https://www.literatura.us/idiomas/ra_enel.html)

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

1. Ryunosuke Akutagawaren *En un bosquecillo* pasartearen irakurketa edo entzutea.
  - Zenbat pertsonaia daude? Istorio bera kontatzen dute denek?
  - Zer gertatu da benetan? Jakin dezakegu?
  - Dena leku berean gertatu zen? Nola da posible?

Leku berean istorio bera osatzen duten zatien aniztasunari buruzko ondorioak.

2. Txuspo Poyoren *Izaro* dokumental/saiakerara eta haren sortze- eta ikerketa-prozesura lehen hurbilketa.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. "Hautsitako telefonora" jolasten dugu. Zer gertatu da? Zer gehitu edo kendu dugu bidetik? Berriz ere jolasten dugu. Oraingoan bi mezu jaurtiz, bakoitza ilararen beste mutur batetik. Zer gertatu da? Mezuak nahastu al dira? Gainjarri al dira? Bien artean elkargunerik izan al da? Gainjartze eta elkargune kontzeptuen esanahiaz galdetzen diogu geure buruari.
2. Hiruko taldeetan, aurreko kontzeptuak irudikatzen ikusizko moduak bilatzen ditugu, adibidez, honako galdera hau eginez: "errepidean elkargune bat adierazten duen trafikoseinalea badago, zein izango litzateke gainjartze-seinalea?".
3. *Izaro* dokumental/saiakeraren bigarren aurkezpena. Gure buruari zer elementu dituen galdetzen diogu:
  - Zenbat istorio kontatzen ditu?
  - Noiz gertatzen da istorio bakoitza?

- Zein hiri konektatzen ditu? Eta zein pertsona?
- Esan genezake leku baten erretratua dela? Zergatik?

4. Lau edo bosteko taldeetan, elkarguneen eta gainjartzeen zer istoria kontatuko/sortuko duten bilatzen hasten gara, gertaera edo benetako puntu geografiko batetik abiatuta. Ahal izanez gero ikastetxetik hurbil dagoena.

5. Ikerketa-aldia, informazioa eta materialak hautatzea, eta aldi berean, istoria idazten/muntatzen hasten gara. Bertan, errealitatea eta fikzioa, hainbat puntu geografiko, pertsonaia eta denbora nahastu ahal izango dira, baina, nolabait, leku berean elkartu, aurkitu edo gertatzen dira. Une batean edo gehiagotan, bi talde elkartu daitezke beren proiektuak nola garatzen ari diren partekatzen, balorazioak egiteko eta hobekuntzak egiteko.

6. Talde bakoitzak bere proiektua amaitzen du, aurkezpen edo erakusketa bat eginez, hainbat elementurekin (ikusizkoak, idatzizkoak, soinuak...).

### Ondorioak eta lerro irekiak

1. Proiektuen erakusketa (ikasgelan edo beste ikasgela batzuekin), geroko eztabaida-foro txikiekin.
2. Egindako ikaskuntzak partekatzen taldea biltzen da.
  - Ikusten al ditugu istorioak orain, proiektua hasi aurretik bezala? Film bat? Ipuin bat? Telebistako albiste bat?
  - Modu berean ez bada, nola aldatu dira istorio horiek erretratu gisa ulertzeko gure moduak? Gogoan izan adjektiboak erabiltzea aldaketa horiek azaltzeko.
3. Amaitzeko, Chamizada Adiche-ren *El riesgo de la historia única* hitzaldia proiektatuko daiteke (osorik edo zatituta) eta hitzaldia komentatu.